


GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAK

2013ko ekainaren 14an aurkeztuko du

Barroko neurrigabea

Cattelanetik Zurbaránera. Bizitza ezegonkorraren adierazpideak



GUGGENHEIM BILBAO

Barroko neurrigabea: Cattelanetik Zurbaranera.

Bizitza ezegonkorren adierazpideak

- Datak: 2013ko ekainaren 14tik urriaren 6ra
- Komisarioa: Bice Curiger
- Aretoak: hirugarren solairukoak
- Egoitzak: Kunsthau Zürich eta Guggenheim Bilbao Museoa

Kunsthau Zürich eta Guggenheim Bilbao Museoak lankidetzan antolatu dute [Barroko neurrigabea: Cattelanetik Zurbaranera. Bizitza ezegonkorren adierazpideak](#). Erakusketak elkarrizketa bat sortzen du artelan garaikideen eta XVII. mendeko margolanen artean, eta helburu du Barrokoaren kontzeptua ohiko pertzepzio estetikoetik aldentzea, zenbait klise alde batera uzteko, hala nola, handitasuna, apaingarriak eta urre koloreak; aitzitik, “bizitza ezegonkorren adierazpideetan” arreta jartzen du: bizitzaren izaera ezegonkorra eta neurrigabea bezain zalantzarria.

Erakusketak aurrez aurre jartzen ditu XVII. mendeko artista handien lanak eta egungo sortzaileenak: Pieter Aertsen, Giovanni Battista Langetti, Alessandro Magnasco, José de Ribera, Jan Steen, David Teniers Gaztea, Simon Vouet eta Francisco de Zurbarán, besteren artean, eta Maurizio Cattelan, Robert Crumb, Urs Fischer, Glenn Brown, Tobias Madison, Paul McCarthy eta Cindy Sherman, besteak beste. Bi artelan multzo handi horien arteko azaleko analogia tematikoak eta formalak saihestea du asmo erakusketak; izan ere, errealitate desberdinak plazaratu arren, talka egiten dutenak, antzekoak direla aditzera eman nahi du: elkarren inspirazio-iturri dira, elkar elikatzen dute eta ikuslearen begirada berritzen dute.

Bice Curiger erakusketaren komisarioaren hitzetan, *Barroko neurrigabea* erakusketaren helburua ez da “maisulanen jaialdi bat eskaintzea”, ezta “korronte estilistiko neobarroko baten existentzia aldarrikatzea ere”. Ordea, helburua da duela hainbat mendetako artea guregana hurbiltzea eta ulargarria izatea, bizipenen mundura ekartzea: “Iraultza bisual eta komunikatibo handien aroan bizi garela, tentagarria eta aproposa da atzera begirakoa eskaintzea garai bati, non begi-bistakoa eta “ikusmena” goratu baitziren, gai alegoriko kutunen artean. Orainaldiaren bultzadek lagun diezagukete antzinako artearen interpretazio berriak aurkitzen...”.

Museoaren hirugarren solairuan zehar, ehun artelan baino gehiago daude erakusgai. Muntaiak zinematografikoaren teknikan oinarritutako aurkezpen baten bidez, ikuspuntu garaikide batetik historiari atzera begirakoa ematen zaio, landa-girokoa, zakarra, erlijiozkoa eta sentzuala dena zenbait alderditatik aztertzen da, baita baldarra, barregarria eta gizon gisakoa dena ere; guztiak dira ohiko gaiak Barrokoan.

Erakusketan, Kunsthaus Zürichek maileguan utzitako artelanak daude, baita Europako antzinako arteari buruzko museo nagusiek utzitakoak ere, hala nola, Bilboko Arte Ederren Museoa, Prado Museoa, Vienako Kunsthistorisches Museum eta Frankfurtoko Städel Museum. Halaber, zenbait bilduma pribatuk ere balio handiko artelan sorta bat maileguan utzi du.

Bukolikoa eta komikoa dena

Erakusketaren abiapuntua areto klasikoak dira, non erakusgai dauden bizioa, lizunkeria, bekatuzkoa eta grina irudikatzen dituzten margolanak; unibertso tematiko alai eta lasaia dugu. XVII. mendean horrelako gaiak landu zituzten, aristokraziaren eta burgesiaren gustuak asetzeko; burgesia erosle mota berri bat zen garai hartan, hirietako dendari dirudunen artean suspertzen ari zena .

Eszena bukoliko eta komikoak, tentazio sentsualez eta haragizkoez beteriko egunerokotasuna erakusten dutenak, adibidez, *Eztei oturuntza nekazal taberna batean* (ca. 1665), Jan Steenena, eta *Natura hila txerriarekin* [*La Porchetta*], Jose de Riberaarena, tartekatu egiten dira garai hartako gizartean zeuden pobrezia-, zikinkeria- eta indarkeria-irudiekin, *Bi nekazari upel baten ondoan borrokan* (1625–38) adibidez, Adrian Brouwerrena. Artelan horien bidez, artistek motibo mundukoia nãbardura guztiekin irudikatu zituzten, eta, aldi berean, saiatu ziren ezkutuko iruzkin morala ematen.

Areto horietan ere Juergen Tellerren artelan bat dago erakusgai. Bi emakumeri ateratako argazkietan datza artelana. Gaez, hutsik zegoen Louvren barrena paseatzen ari zirela egin zizkien, eta Da Vinciren *Mona Lisa* eta Berniniren *Hermafrodita lo* lanen aurrean posatzen. Intimitate publiko hori dela medio, bizitza artera hurbiltzen saiatu zen Teller —eta alderantziz—, modu pixka bat aztoratzaile eta surrealistan.

Oso bestelako zentzu batean, beste errealitatea erakusten zaigu Boris Mihailoven lanean: Sobietar Batasunaren ondorengo gaur egungo gizartearen inguru marjinaletan ateratako argazkiak dira; komunitate bat, mendebaldeko kontsumismoa ezarri zitzaiona eta gaur egun baldintza estugarri eta zapaltzaileak pairatu behar dituen. Irudi horien kutsu existentzialistak zer pentsatua ematen digu “espazio artistikoan alde batera utzitako bizitzaz”, mundu honetan, dudarik gabe, pertsona askok jasan behar duen bizimoduaz mintzo.

Espazio berean, Dana Schutzen *Nola dantzatuko genuke* (*How We Would Dance*, 2007) artelana dago ikusgai, fantastikoa eta gogoetazkoa uztartzen dituen atzeraka erortzen ari den irudi bat erabiliz; artistak berak esanda, San Pedoren irudia da, alderantziz gurutzatua, Caravaggioren *San Pedoren gurutziltzaketa* artelanetik ateratakoa.

Mitologia eta gizontasunaren goratzea

Gizarte ordena patriarkal batean, dinastia menderatzaileek mitologiari edo antzinateko heroiei berariaz dei egin zieten, beren leinua eta boterea legitimatzeko. Beraz, Francisco de Zurbaranen Herkulesek ez du bakarrik gizontasun nabarmenena irudikatzen, baita buruzagien bertutetsuaren ideala ere. Bai giza bizioen eszenifikazio irakasgarria bai bertutezko bizitza baten deskribapen eredugarria gizonen mundu

bati buruzkoak ziren. Emakumeen xarmari egindako goraipamenak ia beti disimulatzen ziren; gizontasuna eta gizonen heroismoa, berriz, goretsi egiten ziren.

Francesco Capellaren *Susana eta zaharrak* (ca. 1745–50) margolanean agertzen den istorioa, kontrol moralik gabeko testuinguru batean bi agure lizunek emakume gazte bati eragindako sexu-indarkeria erakusten duena, erosleen desira voyeuristak betetzen dituen ohiko gaia zen barrokoan. Halaber, *Munduko baztertua* (*Nigger of the World*, 2011) pinturan, Glenn Brownek Susana bururik gabe erakusten digu, gorputza zauriz betea duela: bere xarma galdu du eta hari begira zeuden adindunak ere desagertu egin dira.

Horren ildotik doa ere erabat aztoratzailea den *Beltzaren bortxaketa* (1632), Christiaen van Couwenberghena, hiru gizon zurik emakume esklabo bat basatiki bortxatzen erakusten diguna.

Era berean, Urs Fischerren *Pintura arazotsuak* (*Problem Paintings*) sailaren lan batek murgildu egiten gaitu sexu-harremanen irudikapen artistikoaren konplexutasunean. Artistak frutak, barazkiak, tresnak, eta abar Hollywoodeko aktoreen aurpegien aurrean jarri zituen, eta artearen historian genero klasikoek, zehazki erretratua eta natura hila, duten lekua aztertzeke.

Maurizio Cattelanek, bestalde, artean agertu ohi ez diren bizitza-aztarnak sartzen ditu bere artean sarritan. *Titulurik gabea* (2007) artelanean, adibidez, disekatutako bi txakur txita bat zaintzen ageri dira, eta badirudi barrokoaren ideia bat irudikatzen dutela, hau da, bizitasuna ere bizitzaren ezegonkortasunaren erakusle dela.

Barregarria eta baldarra dena

Barrokoan gustukoak zituzten portaera baldar eta oldarkorren irudikapenak, arauak urratzen baitzituzten, baita ohiz kanpokoa, itsusia eta desberdina zena irudikatzen zituztenak ere, armonia klasiko gorenari kontrajartzeko. Desitxuraketa eta gehiegikeriaren bidez, hainbat gairi “urrunetik” heltzen ziezaiekeen: besteak beste gorputzari eta sexualitateari.

Juan Carreño de Mirandak Eugenia Martinez Vallejoren gorputz biluziari egindako erretratuak “munstro” bat erakusten digu: artistak bai jantzita bai biluzik irudikatu zuen. Beste margolanetan ere, hala nola, Faustino Bocchiren *Eszena burleskoan* eta Bartolomeo Passerottiren *Maitale eroak* lanean, ikusten dugu Barrokoan arraroa eta “gordina” denarekiko gustua zegoela.

Gaur egungo lan batzuk oraingo errealitatearen erakusle dira, gehiegikeriaz eta hiperkontsumismoz beteriko mundu batenak. Horra hor *Under Sided*, Ryan Trecartin eta Lizzie Fitchen antzerki eskultorikoa, *Temp Stop* (2009–10) bideoa barne duena eta gazte-kultura iluna eta obsesiboa agertzen duena.

Frank Gehryren eraikinaren areto handienetako batean, petalo-itxura duen horretan, gai mitologikoko margolanak dira erakusgai, gonbidatzen gaituztenak literatura-erreferentziaz, fantasiaz eta erotismoz beteriko unibertso batean murgil gaitzezen, esaterako, *Satiroek Venus ezustean harrapatzen dute* (ca. 1925), Nicolas Poussinena, edo *Eszena alegorikoa*, Dominicus van Wijnen-ena (1680–90).

Era berean, Simon Voueten *Europaren bahiketa* (ca. 1640) margolanean, sexu-grinaren deskribapenak kutsu barregarria hartzen du zezenaren itxuragatik: izan ere, haren mihiari lerdea dario, modu likitsean; begiak zabal-zabalik ditu, Europaren bular biluziari lizunki begira.

Orobat, lizunkeria eta baldarkeria du gaitzat Urs Fischerren *Noisette* (2009) artelan lotsagabeak: oso itxura errealeko silikonazko mingain bat museoaren paretan egindako zulo batetik ateratzen da, mugimendu-detektagailu batzuek eraginda, eta leunki dar-dar egiten du, bisitarien begi harrituen aurrean, zuloan berriro desagertu baino lehen. Pieza hau bat dator Europa iparraldeko Barrokoaren konbentzionalismoekin; izan ere, garai hartan, orain bezalaxe, mingaina erakustea keinu zakarra zen, baldarra eta lotsagabea, arau-hauste baten erakuslea. Dena den, *Noisettek* ere zerbait sotilago irudikatzen du, espazio artistikoari bizia ematen diona, pareta bizirik balego bezala, nahiz eta berez hala ez izan.

Caravaggio eta iluntasuna

Erakusketarekin segitzeko, argilunaren teknika jarraitzen duten margolan-sail bat dago erakusgai; teknika horri esker, Caravaggiok goitik behera aldatu zuen artearen mundua XVII. mendean, eta lortu zuen dramatismoa areagotzea, sakratua eta profanoa, egunerokoa eta gorpuztasun sentsuala nagusi bihurtuz. Joera hori Europa osoan zehar zabaldutako zen, gehienbat ipar aldean, bereziki Utrechtoko Eskolako caravaggisten bidez. *Santa Irene eta haren neskamea Done Sebastian zaintzen* (ca. 1615–21) margolana, Dirck van Baburenena, sentsualitate plastikoa tarteko, gizatasun eta erlijio-hunkiberatasunaren adibide garbia dugu. Halaber, nabarmendu behar da Caravaggiok Espainiako margolariengan izan zuen eragina. *San Sebastian, emakume santuek sendatuta* (ca. 1621) konposizio ausartean, Jose de Ribera, zeinak bere estilo errealistarekin parte hartzen duen Barrokoa Erroman eta Napolin zabal zedin, argiaren tratamendu caravaggieskoa izan zuen inspirazio-iturri eta San Sebastianen martirioa berrartu zuen estilo piktoriko zuzenaz.

Bestalde, *Inauteriak (Carnival)* (2011) artelanean ere, Glenn Brownek argiztapena erabili zuen, kasu honetan argi urdin indartsu baten bidez, hiru metroko luzera baino gehiago duen zaldi-buru baten dramatismoa areagotzeko. Hurbilduz gero, ikusiko dugu pintzelkadak desegin egiten direla marra aztoratzailez egindako nahaspila ordenatu batean eta kolore-orban harrigarri eta kezkarrietan.

Barroko berantiarrean, gaua eta iluntasuna inspirazio-iturri zuten gaiek kutsu kezkarria hartzen dute Alessandro Magnascoren ikuspen ilunak tarteko, eta bere monje eta bidelapurrak *Fraideak sutondo inguruan* (ca. 1725), mamuak balira bezala pintura azkar eta urdurian bizileku dutenak. *Galdeketa espetxean* margolanean (ca. 1710–20), Magnascok kartzelan egindako galdeketa baten eszena irudikatu zuen, aditzera emateko inkisizioak zekarren izu-ikara eta izugarrikeria guztia, Jainkoaren izenean torturatzea agintzen zenean. Inauteria, berriz, ihesbidea izaten zen, ezarritako ordena urratzeko aukera zilegia ematen baitzuen; horren adibide dugu, Pieter van Laerren *Inauteri ospakizunak taberna batean* (ca. 1635).

Sorginen eta San Antonen oinazearen irudikapenen bidez, tentazioaren izaera fantasmagorikoa adierazi nahi izan zen Barroko garaian. Surrealismoaren aitzindari goiztiartzat jo izan den Monsù Desiderioren

pintura misteriotsuetan, arkitektura klasikoak ikusten ditugu, ia beti jenderik gabeak, eta gau giroko ingurune beldurgarrietan eraisten, lehertzen edo erretzen ari direnak.

Horien ondoan, Oscar Tuazonen lan bat dago: izaera baldarra eta erasotzailea du. Ezaugarri poetikoak ditu eta bi iturritatik edaten du: duela gutxiko eskulturaren historiatik eta 1970eko hamarkadako kontrakulturatik. Ideia espekulatibo edo utopikoetatik ere edaten dute honako gai hauei heltzeko: etxebizitza, bizirik irauteko estrategiak eta aterpea ematea. *Zenbakiak* (*Numbers*, 2012) artelanean, Tuazonek barrutik ibiltzeko moduko eskultura bat sortu zuen, zenbait elementuz. Eskulturaren oinarria zera da: gela txiki batek AEBn legez izan behar duen neurria (esaterako, dutxako kabinek eta telefono-kabinek izan behar dutena).

Vanitas edo neurrigabekeriaren adieraztea

Erakusketaren azken atalean, zenbait alegoria eta erretratu biltzen da, baita bestelako artelanak ere, inspirazio-iturri dutenak antzinetatik ezaguna eta Barrokoan oso ospetsua zen gai bat: vanitasa. XVII. mendean izandako gerren eta hondamendien ondorioz, heriotza beti nonahi zen, eta horren isla makina bat ikurretan aurkitu zuten, garezurretan, adibidez, —horren erakusgai da *Vanitasa eta natura hila burezurrarekin, kandelarekin eta sakelako eguzki orratzarekin* (ca. 1620), maisu aleman batena—, baita pintura-motiboetan ere, esaterako, ur uherrek astindutako itsasontziak, Jacob van Ruisdaelek hain ongi irudikatu zituenak.

Testuinguru horretan, natura hilak esanahi berezia hartu zuen. Moztutako frutak edo hildako ehiza-hegaztiak anbiguasun erotikoaren erakusle dira; mahai bikainek, lore ederrek eta objektu baliotsuen edertasunek, aldiz, gogorazten digute gure patua gainbehera eta behin-behinekotasuna direla; horren adibide dugu, David Conincken *Natura hila loreekin, fruituekin eta tximinoarekin* (ca. 1685) margolana.

Marilyn Minter ere saiatu zen neurrigabekeria eta oparotasuna islatzen, areto berean dauden eta esmalte aluminio gainean egindako lau irudi hiperrealisten bidez, aldi berean ikuslearen atsegingarri eta aztoragarri. Ume itzel bat jolasean ari da, pintura grisarekin plisti-plasta, eta giza bilaketaren ikurra da, gozamenaren bilaketarena; takoi garestia plisti-plasta dabilta, eta emakume baten ahoari ura dario, eta distiratsu ageri da, nolabait irri bihurri baten eta keinu baten artean. Irudi hauek neurrigabekeriaz ospatzen dute azalekoa, begi-bistakoa dena eta “*glamour*aren patologia” deitu izan zaiona.

Artearen hurbiltasunetik bizitzaren errealitate gordinera dagoen tarteaz ere mintzo da Diana Thaterren bideo-instalazio handia, Txernobili eskainitakoa, 1986ko apirilaren 26an gertatu zen hondamendiari, zentral nuklearraren 4. blokean, Ukrainako Pripjat hiritik gertu, egun erradioaktibitate gehien duen tokietako bat mundu mailan. Thaterren filmak abandonatutako toki honen giro kezagarria, malenkonia- eta mehatxu-kutsua erakusten digu. Hondamendi-sentsazioa da nagusi, baina bitxia bada ere, ukitu erromantiko bat ere bada paisaia suntsigarri honen aurrean. Alde batetik, Thaterrek hondamendiaren hondakinak grabatu ditu; eta, bestetik, bere harridura aditzera ematen du naturaren indar ikaragarriaren aurrean.

Erakusketa honek begirada desberdina eta paregabea eskaintzen dio artearen historiari, duela hainbat mendetako artea erakutsiz, artista garaikideen adibide aukeratuen ondoan; bi errealitate desberdinak

dira aurrez aurre jarriak, erakusketaren komisarioaren esanetan “elkarren inspirazio-iturri direnak eta elkar elikatzen dutenak, teknika konbentzionalen berezko linealtasuna apurtuta”.

Katalogoa

Erakusketaren katalogoan ibilbide bat erakusten zaigu, artearen eta bizitzaren arteko lotura irudikatzen duten artelanetan barrena. Irudiei, saiakerei eta hitz ugari dituen glosarioari esker, irakurlea Barrokoaren unibertso sentoriorlean murgiltzen da. “Barrokoaren” ezaugarriak eta izpiritua definitzera ausartzen diren testugileen artean, honako hauek ditugu: Bice Curiger erakusketaren komisarioa, Raoul Vaneigem idazle eta filosofo belgikarra eta Elfriede Jelinek idazle austriarra, 2004an Literatura Nobel Saria irabazitakoa. Horrez gain, katalogoan bada Nike Bätzner, Michael Glasmeier, Victoria von Flemming eta Tristan Weddigenen arteko eztabaida bat, “Barroko” hitzaren esanahiari buruzkoa eta historian zehar izan duen eboluzioari buruzkoa.

Garaiko artea eta haren testuingurua

Erakusketa osatzeko, gune didaktiko bat dago, Barrokoa definitzen duten zenbait hitz plazaratzen dituen, ardatz hartuta bai bizitasuna bai bizitzarekiko gertutasuna. Era berean, gune horretan irudizko jolas bat proposatzen da, diagrama modura, aipatutako hitzen arteko loturen ingurukoa. Horrez gain, erakusketaren dibertimendu-espirituari lotuta, aukera izango da musika barroko eta musika garaikideko aukeraketa batekin gozatzeko, barrokoa berrinterpretatzen duena, Michael Glasmeier arte-historialariaren eta Frieder Butzmann musikariaren eskutik, hurrenez hurren.

Bestalde, ekainaren 11n, asteartean, 18:30ean, Cristina Lucas eta Marilyn Minter artistak mahai-inguru batetan parte hartuko dute Museoko Entzugelan; Bice Curiger, erakusketaren komisarioa, izango da moderatzailea. Mahai-inguru honetan, beren sormen-prozesuak azalduko dituzte eta erakusketan dituzten artelanez mintzatuko dira artistak. Jarduera hau doakoa izango da Museorako sarrerarekin batera, eta aldibereko itzulpena izango du: ingelesa-gaztelania.

Imagen de portada:

Marilyn Minter (1948-)

Deritiéndose (Meltdown), 2011

Esmalte sobre dos placas de metal

304,8 x 243,8 cm

Bilduma pribatua

Cortesía de la artista y de Salon 94, Nueva York

Informazio gehiagorako

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta Komunikazio Arloa

Tel: +34 944359008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

<http://prensa.guggenheim-bilbao.es/>

<http://barroco.guggenheim-bilbao.es/eu/>

Prentsa irudiak:

Barroko neurrigabea: Cattelanetik Zurbaranera. Bizitza ezegonkorren adierazpideak
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.es

1. **José de Ribera (1951–1652)**

Done Sebastian emakume santuek sendatuta, ca. 1621

Olio-pintura mihise gainean

180,3 x 231,6 cm

Bilboko Arte Ederren Museoa



2. **Maurizio Cattelan (1960-)**

Titulurik gabea, 2007

Disekatutako txakurra eta txita eta zabaldutako poliuretanoa

Neurri aldakorrak

Instazioaren ikuspegia: Maurizio Cattelan, Kunsthau Bregenz, Austria, Otsailak 2–Martxoak 24, 2008

Foto, Markus Tretter

Bilduma pribatua

Cortesía del Archivo Maurizio Cattelan



3. **Albert Oehlen (1954-)**

FM 18, 2008

Olio-pintura eta papera mihise gainean

230 x 270 cm

Artistaren eskaintza

© VEGAP, Bilbao, 2013



4. **Diana Thater (1962-)**

Txernobil (Chernobyl), 2010


Instalazioa: 6 proiektore, 6 multimedia gailu, Lee filtroak

3 aleko edizioa + 1 AP

Artista eta Hauser & Wirth, London-en eskaintza

Instalazioaren ikuspegia Hauser & Wirth-en, London

Hauser & Wirth-en irudia



5. **Glenn Brown (1966-)**

Zoriona esku artean (The Happiness in One's Pocket), 2012

Olio-pintura ohol gainean

225 x 180 cm



Artistaren bilduma. Eskaintza: Gagosian Gallery
© VEGAP, Bilbao, 2013

6. **Simon Vouet (1590–1649)**

Europaren bahiketa, ca. 1640

Olio-pintura mihise gainean

179 x 141,5 cm

Museo Thyssen-Bornemisza, Madril



7. **Juergen Teller (1964-)**

Paradisua XII (Paradis XII), 2009

Koloretako kopia

127 x 177,8 cm; markoa barne: 134,5 x 194,5 x 0,6 cm

Edizioa 5 aletik 2. Artistaren eta Lehman Maupin Gallery-ren eskaintza



8. **Pieter Aertsen (1507/08-1575)**

Haragi postua, 1551–55

Olio-pintura ohol gainean

123 x 175 cm; markoa barne: 151 x 202 x 8,5 cm

Bonnefantenmuseum Maastricht




9. **Francisco de Zurbarán (1598-1624)**

Herkules bidea ixten Alfeo ibaiari, 1634

Olio-pintura mihise gainean

133 x 153 cm; markoa barne: 147,5 x 169 x 6,5 cm

Museo Nacional del Prado, Madril



10. **Urs Fischer (1973-)**

Pintura arazotsua (Problem Painting), 2012


Akrilikoa, berniza eta serigrafia aluminio gainean

360 x 270 x 2,5 cm

Kunsthau Zürich,

Vereinigung Zürcher Kunstfreunde

Artistaren dohaintza



11. **Bartolomeo Passerotti (1529-1592)**

Maitale eroak, d.g.

Olio-pintura mihise gainean

114 x 118 cm

Bilduma pribatua, Paris



12. **Cristina Lucas (1973-)**

Argi gehiago (Más luz), 2003

HD bideoa 4:3 kolorea eta soinua. 10 min

Edizioa: 3 aletik 1. + 2 AP

Artistaren eta Juana de Aizpuru galeriaren eskaintza

